

# **AZKEN NEURONAREN HERIOTZA**

**30-45 MINUTUKO KOMEDIA**

## OHARRAK

Antzerkia Ertzaintzako galdeketa gela batean gertatzen da. Mahai bat dago, mahaiaren gainean bi argazki, Metallica eta ACDCrenak, eta aulki bat mahaiaren aurrean, ikusleak ondo ikusteko bertan eseriko duten atxilotua. Hiru aktore izango dira, baina bost pertsonaia.

-Ander Aseginolaza Agote: atxilotua. Adatsean hiru motots edo ´rasta´ handi dauzka.

-Ertzaina burua, ´Nagusi´ deituko duguna. Emakumezkoa da.

-Ertzaina arrunta 1. Gizarajoa da.

Ertzaina arrunta 2. Tropa afeminatua da.

Ertzaina arrunta 3. Miopea, informatikoa, pedantea, trepa.

Hiru ertzain hauek txandaka aterako dira eszenara, banaka, inoiz ez dira elkarrekin egongo, beraz aktore batek egin ditzake, janzkeran eta itxuran aldaketa txiki batzuekin, eta bakoitzari bere nortasuna emanez.

Ertzain-burua eskuinetik sartu-irtengo da beti, eta ertzaina arruntak ezkerretik.

**LEHEN ATALA**

Ertzaina 1-ek Ander dakar gelara, atxilotuta.  
Eztabaidan datoz.

Ander:

Hau gaizki ulertu bat da! Oker zaude!

Ertz 1:

Gaizki ulertu duena zu zara. Atxilotuta zaude, eta ikusiko dugu zein ateratzen den hemendik okertuta!

Ander:

Zure autoa mugitu nahi nuen apur bat, nirea ateratzeko, besterik ez!

Ertz 1:

Besterik ez izateko, bi urte pasa beharko dituzu itzalean! (oihuka) Nagusi! Nagusi!

Nagusi (eszenan sartzen da):

Zer gertatzen da? Zer egin du honek?

Ertz 1:

Ertzainen autoa harrapatzen saiatu da, baina ez du martxan jartzerik lortu, eta azkenean bazterra jota utzi du!

Ander:

Bat: autoa bigarren ilaran zegoen, ondo aparkatuta zegoen nire autoaren irteera itxiz.

Nagusi (Ertz 1-i):

Egia al da hori?

Ertz 1-ek burua mugitzen du, ezinbestean onartuz.

Nagusi:

Aber behingoz ikasten duzun: Jende normalak uzten ditu autoak bigarren ilaran, ez Ertzaintzak!

(Anderri begira) Eta bi?

Ander:

Ba autoak ez zeukala Ertzaintzaren ezaugarriarik. Txoferraren aldetik, ni sartu naizen lekutik, txuria zen! Eta txuria da oraindik ere. Hor egongo da atarian!

Nagusi (Ertz 1-i begira):

Zer egin duzu oraingoa? Autoa tuneatu?

Ertz 1:

Oso erraza da ulertzea, agertuko dizut dena. Atzo tailerrean utzi genuen autoa, margotzeko. Baina gaur goizean emaztea erdiminez hasi da, eta neure autoa semeari utzia nionez...

Nagusi:

Zer pintatzen du zure emazteak hemen? Ez al nizun esan ez nahasteko bizitza pribatua eta lanbidea?

Ertz 1:

Emazteak ez du ezer pintatzen, ez, arrazoi duzu. Tailerrekoak ziren autoa pintatzekoak. Larritu egin naiz, eta tailerrera jo dut patruilako autoaren bila, baina erdia bakarrik zuten margotua, kopilotoaren aldea.

Ander:

Beste aldea txuri-txuri zegoen. Zer delitu dauka auto normal bat mugitzeak?

Nagusi (Ertz 1-i):

Eta ausartu zara horrela kalera ateratzen?

Ertz 1:

Emaztea minez zegoen. Eramango nuen bizkarrean, nagusi, 80 kilo pisatuko ez balitu.

Nagusi:

Tira, larrialdi bat larrialdi bat da.

Ander:

Eta nerea ez al da larrialdia? Lanera berandu iritsiko naiz. Eta zer esango dut? Non egon naizela? Nagusiei ez zaiei gustatzen langilea zipaioekin arazotan dabilela jakitea!

Ertz 1:

Oraindik ez duzu ezer ikusi. Baina zipaio (hitza azpimarratuz) honi barrabilak ikutzen badizkiozu orduan bai arazotan sartuko zarela.

Nagusi:

Tira, lasaitu gaitezen denok. (Ertz 1-i)Ea, noiz lapurtu dizu honek autoa?

Ertz 1:

Anbulatoriora iritsi naiz, baina ate aurea okupatua zegoen...

Ander:

Noski, ni han bizi naiz eta, orduantxe nindoan ateratzera!

Ertz 1:

Herio hartan bigarren ilaran utzi dut, eta emaztearekin barrura joan naiz.

Ander:

Ni ere herio batean nengoen! Lanera joan behar eta ezin autoa atera! Zer egin behar nuen? Gilipoias honen zain geratu? Txoferraren atea ireki dut, barrura sartu naiz, esku-frenoa kendu diot eta apur bat aurreratzen hasi naiz!

Ertz 1:

Emaztea medikuarekin uztea izan da, kanpora atera naizenean hor ikusi dut autoa aldapan beheara...

Ander:

Urduri jarri naiz astazakil honen oihuekin, eta ez dakit zer gertatu zaidan. Sekulako aldapa dago, eta han joan naiz, beheko pareta jo arte.

Ertz 1:

Bere parera iritsi naizenean porra zeukan eskuan. Jarri hori paperean: polizi-auto bat lapurtzea, autoritateari entzungor egitea eta atxiloketa unean erresistentzia agertzea!

Ander:

Porra neukan eskuan kanbio-plankarekin nahastu dudalako. Pentsatu ere egin dut sado-maso praktikatzen duen kafreren batena zela autoa!

Nagusi (pentsakor, biei begira, harri eta lur):  
Oso gaizki egin duzue biok. Zuk (Anderri) ondasun publikoa den auto bat lapurtzeagatik. Eta zuk (Ertz 1-i) polizia identifikatzen duen auto bat anfibio bihurtzeagatik!

Ertz 1:

Autoarena da gutxiena. Begiratu honi (Ander seinalatuz). Ez al zara konturatzen?

Nagusi (Anderri begira):

Zertaz konturatu behar nuke?

Ertz 1:

Gezurretan ari zaigu!

Ander:

Zenbat antxoa hartu dituzu gosaltzen?

Ertz 1:

Entzun duzu?

Nagusi:

Antxoak gosaltzen al dituzu?

Ertz 1:

Antxoa kokaina arraia bat da hauen argotean. Ez al dituzu entzun aurretik esan dituenak: kafrea, gilipoiasa, astazakila...

Ander (mahai gainekeo argazkiak seinalatuz):  
Kutrea esatea falta zait, argazki hauek zureak badira, behintzat. Kutrea zara gero. Metallica eta ACDC. Matusalen baino pasatuago daude eta!

Nagusi (Ertz 1-i):  
Ez al nizun esan horiek kentzeko? Ez al nizkizun eman Aresen eta gure Patxiren argazkiak?

Ertz 1:  
Baina Patxiri ere gustatzen zaio eta ACDC! Gainera igualeko melenak dauzkate Aresen ondoan!

Nagusi:  
Errespetu bat, mesedez!

Ertz 1 (Ander seinalatuz):  
Delinkuente bat da. Hau ez da anbulatorio ondoan bizi, okupaturako etxe batean baizik.

Nagusi:  
Nola dakizu hori?

Ertz 1 (guraizak atera eta rasta bat mozten dio, raust, Nagusiari sudurrean jarriz. Honek aurpegia okertzen du kiratsarekin):  
Zenbat denbora uste duzu behar dela motots hau horrela potroiltzeko? Ilerik ez du garbitu honek azken zazpi urtetan! Zergatik? Urik ez daukalako etxean! Eta zergatik ez dauka urik? Okupa bat delako eta udalak ura moztu zietelako. Honek ez dauka autorik. Eta lana gutxiago. Beno, lana hemendik libratzen izango du!

Ander:  
Etzazue esan orain txurroak edukitzeagatik atxilotuko nauzuela! Jende askok dauzka!

Ertz 1:  
Bai, baina txukun txukunak, ile-apaindegian jarritakoak.

Ander:

Diseinuzkoak, bai. Baina nereak urte askotako errebeldiaren sinbolo dira!

Nagusi (interesaz begiratzen dio Anderri, Ertz 1-i esanez):

Harrituta utzi nauzu behingoz, baina ziurta dezagun guzti hori. Tira, konproba ezazu autorik ba al duen! Eta aldatu argazki horiek!

Ertz 1 gelatik ateratzen da eta ez dio entzun.

Nagusi (Anderri bultza egiten dio, aulkian eseritzera behartuz):

Ni ere zu bezalakoa izan nintzen gaztetan. Barrioko mutilik gaiztoenaren neska nintzen (bere gorputza laztantzen du probokazioz). Ritxi zuen izena, eta horixe zeukan txikiena; zelako melena, zelako bizepsak, zelako... (tristetuz) Baina...

Ander:

Zer? GaiDOSi batekin hil zen, ezta? Zer izan zen, zaldia, perika, hala zure gaiDOSia...

Nagusi:

Ez. Bizi da. Ni aldatu nintzen. Behin ertzain batek katxeatu ninduen, urde batek bezala den-dena igurtziz (bere gorputza laztantzen du probokazioz)... Buf, nola jarri ninduen... Ertzaintzan sartzea erabaki nuen. Gurasoek ez zuten nahi, pentsa, errebeldea nintzela esan zidaten... Ertzaintzan sartzeagatik. Uniformea gustatzen zitzaidan. Umetan nire lagun guztiak joan ziren mojen kolegiara, unformatuta, eta ni eskola nazionalera.

Ander:

Sofistikatua benetan.

Nagusi:

Sofistikatua, zer?



Ander:

Polizia onaren eta txarraren antzerkia. Zer maila lortu duzuen akademian!

Nagusi (haserre):

Gaizkileak holakoak zarete, zinikoak, errukigabeak, baina umm... (gorputza laztanduz berriro), zenbat gustatzen zitzaidan nire Ritxi!

Ertz 1 dator:

Lokalizatu dugu berea omen den autoa. Orain dakar nire lankideak. Eta ez. Ez da berea. Neska baten izenean dago.

Ander:

Nere neskaren izenean, noski.

Ertz 1:

A bai? Nola deitzen da?

Ander:

Yurre... pitxurre. Izugarri gustatzen zaio horrela deitzea.

Ertz 1:

Abizenak?

Ander:

Bai... abizenak... nola zen... Jode, familiako liburuan datoz.

Ertz 1:

Familiako liburu eta guzti! Non ezkondu zineten, Begoñako basilikan?

Nagusi:

Nolakoa da?

Ertz 1:

Autoa?

Nagusi (Anderri begira):

Neska!

Ertz 1-ek arraro begiratzen dio. Anderrek denbora hartzen du erantzuteko, iribarretsu.

Ander:

Gorputzaren figura, ilejera, ezpainak... Zu bezalakoa da. Hark ere horrela egiten du (Nagusiaren keinua imitatuz) ondo engantxatzen dudanean!

Nagusia (oihuka, azken agindua emanaz):

Jaso datu guztiak, egin txostena eta eman sinatzeko atxilotuari. Eskatu zita epaitegian!

Ander:

Epaitegian? Ez dut ezer egin, eta badakizu.

Nagusi:

Ez duzu ezer egin, ez. Baina babua izateagatik atxilotuko zaitut. Kapritxo hori daukat. Begira zein erraza!

Ertz 1 paperak begiratzen ari da. Idazten hasten da.

Ertz 1:

Ander Aseginolaza Agote, 38 urte, gizonezkoa, akerra ematen badu ere...

Nagusia kanpora ateratzen da.

Une horretan sakelekoak jotzen dio.

Ertz 1:

Bai? Laztana? Non zaude? Nora zaramatzatela? Baina erotu al dira? Badatorrela? Baina, ez al dio aitari itxoin behar? Oraingo gazte hauek! Zer? Ez dut entzuten! Banoa...

Ertz 1 korrika ateratzen da, papera mahai gainean utzita.

## BIGARREN ATALA

Ertz 2 sartzen da. Poltsa bat dakar eta lurrean uzten du. Gogoratu afeminatua dela. Ander paseatzen dabil gelan, eta Ertz 2-k pistola ateratzen du, ihes egitera doan atxilotu arriskutsua bailitzan. Alde guztietara begiratzen du Ertz 2-k, harrituta inor ez dagoelako. Laguntza eske hasten da.

Ertz 2:

Laguntza! Bizkor! Fite! A-25 bat daukagu!

Inor ez dator.

Ertz 2:

Hau pulamentua!

Bat-batean mahai gaineko argazkiak ikusten ditu. Pistola jaisten du, zorroan gordez.

Ertz 2:

Zer gusto txarra! Zein dabil oraindik makarra hauen atzetik?

Ertz 2-k kajoia irekitzen du, mahai gaineko argazkiak ezkutatzuz eta beste bi jarriz: Fredy Mercuri eta Miguel Bose, adibidez. Haiei begira geratzen da, begiak loretan. Ander une horretan beregana doa, baina Ertz 2-k mehatxutzat hartzen du haren mugimendua eta berriro pistolaz apuntatzen du.

Nagusia agertzen da arnas-estuka.

Nagusi:

Zer gertatzen da? (Anderri begira) Oraindik hemen al zaude? (Ertz 2-ri begira) Zer egiten duzu pistola horrekin? (Ertz 2 'kuadratu' egiten da, soldaduskan bezala, baina eskuan pistola duelarik, honen kainoia bekokiaren kontra jartzen du) Kontuz gizona, bekokia zulatu gabe!

Ertz 2 (eskua jaitsiz):  
Nire promozioko tiratzailek onena izan nintzen.  
Beti apuntatzen nuen zulo txo beltzaren erdian!

Ander (katxondeoz):  
A bai? Eta zer zenuen nahiago, tiratzailea ala  
diana izatea?

Nagusi:  
Orain ez duzu behar. Gorde ezazu pistola hori hor,  
ondo, barrabilen ondoan!

Ertz 2-k pistola gordetzen du.

Nagusiak Anderri heltzen dio besotik, Ertz 2-  
rengana bultzatuz.

Nagusi:  
Tira, eraman atxilotua ziegara epaitegitik deitu  
arte.

Ertz 2-k eskua jartzen du Anderren bularrean,  
haren mugimendua geraraziz.

Ertz 2:  
Ez, nagusi. Barkatu, baina atxilotu honi B-120  
protokoloa itsatsi behar zaio.

Ander:  
Itsatsi? Zer, lotiterekkin?

Ertz 2:  
Barkatu, nagusi, ezarri esan nahi nuen.

Nagusi:  
B-120a? Baina lapur ziztrin bat besterik ez da,  
kinki bat.

Ertz 2:  
Ez al zara konturatzen? Gezurretan ari zaigu!

Ander:

Hara! Bigarren aldia da gaur esaldi hori entzuten dudala!

Nagusi:

Delinkuente bat da!

Nagusia mahai gaineko argazkietan fijatzen da.

Nagusi:

Eta argazki hauek jarri dituen ere delinkuente bat da! Nor izan da?

Ertz 2 (kasurik egin gabe, berearekin jarraituz):  
Gauza garrantzitsu bat deskubritu dut. Harrituta geratuko zara!

Nagusi:

Ez al nizkizun eman zuri ere Aresen eta gure Patxiren argazkiak?

Ertz 2 (ohartzan da nagusia argazkiez ari dela):  
Patxiri ere Fredy Mercuri gustatzen zaiola deskubritu dut.

Nagusi:

Eta hori esatera etorri zara pistola eskuan?

Ertz 2:

Ez, nagusi. Atxilotua kale borrokako buruzagi bat da! Hori esan nahi nizun.

Anderrek barre algara ozena egiten du.

Ander:

Kale borroka? Ia ez naiz etxetik ateratzen eta. Manta izter gainean jarrita han bezala ez da inon egoten!

Ertz 2:

Kasurik ez! Engainatu nahi gaitu! ETaren biberoa zaintzen du, alebinak gizentzen ditu, gero marrazo bihur daitezten: Gure sistema politikoari aginka egingo dioten terroristak!

Nagusi (Ertz 2-ri):  
Oso akusazio larriak dira horiek.

Ertz 2:  
Teoria bat daukat. Eta frogak ere bai. Erreparatu duzu bere abizenean?

Nagusi:  
Aseginolaza, ez da? Zer dauka berezirik?

Ertz 2:  
Esan poliki, A-SE-GI-NO-LA-ZA.

Nagusi:  
A-SE-GI-NO-LA-ZA.

Ertz 2:  
A-SEGI-NO-LA-ZA (SEGI silabak elkarren jarraian esaten ditu, entzun daitezen).

Nagusia eta Ander begira dauzka, ulertu ezinik.

Ertz 2:  
Hor duzu klabea: SEGI talde terroristaren akronimoa abizenean darama, A-SEGI-NO-LA-ZA.

Ander (barrez lehertzen da):  
Orduan, Canoute zer da, porreroa? Eta Zorion Gerribera? Eta Miren Amiano?

Nagusi (ez dago konbentzitua):  
Abizenagatik ezin dugu inor akusatu. Epaileak ez du onartuko.

Ander:  
Ni jaio nintzenean ere Aseginolaza nintzen, eta Segi sortugabea zen.

Ertz 2:  
Ez egin kasurik. Segi legez kanpoko talde bat da, eta bere aktibitateak aurrera ateratzeko klabeen bitartez funtzionatzen dute.

Nagusi (interesatuta):  
Esplika ezazu hori, mesedez.

Ertz 2:  
Segikoez ezin dute bildu. Haien posta elektronikoa, mugikorrak eta dena kontrolatuak dauzkagu. Baina irudika ezazu hitzaldi bat antolatzen dela herri batean.

Nagusi:  
Zer hitzaldi? Hainbeste antolatzen dira astero!

Ertz 2:  
Imajinatu kartelak jarri dituztela:  
´Erresistentzia modu berriak mundu globalizatuan´.  
Hizlaria: Ander Aseginolaza.

Ander:  
Hitzaldi polita emango nuke, bai... (ahots pedantea jarritz) Erresistentzia egin nahi baduzu, hartu zerbeza lata bat eskuan, ireki, jo trago luze bat... (Korrokada botatzen du)!

Nagusi (Ertz 2-ri):  
Hasi natzaizu ulertzen. Dena tapadera bat da. Amarru bat.

Ertz 2:  
Hor dugu konbokatoria: Aseginolaza denean hizlari, segikoen bilera dagoela esan nahi du.  
´Erresistentzia´ hitzean zer daukagu? ERRE aditza.  
´Modu berriak´ horrek ´arma berriak´ esan nahi du.

Nagusi:  
Eta ´mundu globalizatuan´?

Ertz 2:  
Hori disimulatzeko jartzen dute, gu despistatzeko.

Nagusi (serio begiratzen dio Anderri):  
Eseri zaitez. Etzazu erresistentziarik erakutsi, mesedez. Zeuretzat hobe izango da!

Ander (eseriz, harrituta):  
Eta hau dena autoa ondo aparkatzeagatik!

Nagusi (Ertz 2-ri):  
Jarri eskuburdinak!

Ertz 2-k entusiasmaturik jartzen dizkio, eta abilezia handiz.

Ander:  
Joe, hori abilidadea daukazuna eskuburdinak jartzen! Praktika asko egiten duzu?

Ertz 2:  
Sartzazu zure zinismoa kab...

Nagusi:  
Tira! Probokazioetan ez eroritzen erakusten digute! Frogak aipatu dituzu. Sendoak izango direla espero dut.

Ertz 2-k poltsa irekitzen du. Bidoi handi bat ateratzen du.

Ertz 2:  
Bere neskaren autoan aurkitu dugu: hamar litro gasolina!

Ander (ironikoki):  
Ez da gasolina, kerosenoa baizik. Kalefazioa pizteko balio du, baina zuk esnifatu egin duzula dirudi!

Ertz 2:  
Gasolindegia kontrolatu genituenetik erregai berrien bila dabilta. Kerosenoak su berdin-berdin hartzen du.

Nagusi (kezkatan):  
Baina kerosenoa legala da, edozeinek eros dezake!

Ertz 2 (poltsatik botila hutsak ateraz):  
Hauek ere bazeuzkan! Koktel molotovak egiteko ontziak!



Ander:

Ez dut ukatuko atzo festatxo bat egin genuenik!  
Kontenedore berdera neramatzan botilak. Hori ere  
delitua al da?

Nagusi:

Arrazoi dauka... zerbait falta da elementu horien  
artean, konexio bat, lotura bat...

Ertz 2:

Zerk bihurtzen du botila huts bat koktel molotov  
batean?

Nagusi:

Erregaiak... eta metxak, noski!

Ertz 2:

Erregaia badugu!

Nagusi:

Eta metxa?

Ertz 2-k guraizak hartuz rasta bat mozten dio  
Anderri, eta nagusiaren begien aurrean jartzen du.  
Honek sudurra ixten du, apur bat atzeratuz.

Ander:

Zertan ari zara? Ez duzue eskubiderik nere aukera  
estetikoa deusezteko!

Nagusi:

Ez eman usaintzera, mesedez. Badakit nolako  
lurrina duen.

Ertz 2:

Ez daukazu usaindu beharrik. Begiratu, soilik!

Ertz 2-k keroseno apur bat botatzen du botila  
batean, eta muturrean rasta sartzen du, paper  
batez eutsiz, metxa baten moduan.

Ertz 2:

Horra falta zitzaigun elementua: metxa!

Nagusi:

Orain ulertzen dut gazte radikalek zergatik uzten dituzten txurroak!

Ander (aluzinaturik):

Ezin dut sinetsi! Hau peñari kontatzen diodanean berriro petak erretzen hasi naizela pentsatuko dute!

Nagusi (Ertz 2-ri):

Baina zergatik nahiko zuen gure auto bat lapurtzea?

Ertz 2:

Ekintza txikietatik ekintza handietara pasatzeko. Gure autoarekin terrorismo praktikak egin nahi zituzten. Adrenalina pizten die Ertzaintzako auto batek. Ez al zara konturatzen? Eskalada bat da, kabinak erretzetik ertzainak kiskaltzera!

Ander:

Eskalada? Zurea bai eskalada, itzela gainera!

Nagusi (sakeleko telefonoa ateraz, urduri):

Epaileari deitzera noa segituan. (Ertz 2-ri) Arrazoi zenuen, honek B-120 protokoloa eskatzen du, eta K-X-202aren babesa!

Nagusia eszenatik ateratzen da. Ertz 2 pozik dago, orguilos, Anderren inguruan oinez, poliki.

Ertz 2:

Esaidazu dena. Kontaidazu non daukazuen materiala, kideen izenak, dena, eta zure kondenarentzat beherapenak lortuko ditut.

Ander:

Beherapenak? Noiz, Gabon ostean, urtarrileko aldapan?

Ertz 2:

Grande Marlaska ezagutzen dut, pertsonalki... oso pertsonalki gainera (gorputzari mugimendu lizunak eragiten dizkio).

Ander:

Aizu, zu marikoia zer zara, benetan? Ala atxilotuen oreka hausteko estrategia bat da?

Ertz 2:

Aizu! Errespetu piska bat uniformeari!

Ander:

Hara, beste bat uniformearekin obsesionatuta. Zure nagusia uniformeaz janteagatik egin zen ertzain... zuri kentzea gustatuko zaizu, ezta? Edo nahiago duzu porrarekin jostatzea?

Ertz 2 (porra ateratzen du):

Ez dudarik egin, pottoko. Beste leku batean bageunde, Parisera begira jarriko zintuzket!

Ander:

Zenbat sofistikatu diren polizia akademiak Euskal Herrian!

Nagusia dator:

Gorde porra hori, ez ahaztu kamarak dauzkagula!

Ertz 2-k porra gordetzen du eta ilea txukuntzen du, irribarre behartu bat eginez goian dauden kamerei.

Ander (Ertz 2-ri):

Eman buelta, atzetik perfil hobea daukazu!

Ertz 2:

Sartzazu zure zinismoa kab...

Nagusi:

Tira! Probokazioetan ez eroritzen erakusten digute!

Ertz 2:

Bai, baina nik ere neure sentimenduak dauzkat!

Ander:

Sentimendu asko eta neurona gutxi!

Nagusiaren sakeleko telefonoak jotzen du:

Nagusi:

Bai? Si? Enseguida, señor juez. Está ansioso.

Nagusi (Ertz 2-ri):

Grande Marlaska da, zurekin hitz egin nahi du personalki!

Ertz 2 oso urduri jartzen da. Telefonoa hartu eta hizketan hasten da, barre hysterikoak eginez: Kaixo Fernando! Siii... gracias, tu si que eres grande... grande marlaska, ja, ja ja!

Nagusi:

Prestatu dena atxilotua zentralera eramateko. Deitu eskolta autoei!

Nagusia atera egiten da. Ertz 2-a ere kanporantza doa, eta ez dio entzun.

## HIRUGARREN ATALA

Ertz 3 sartzen da. Paisanoz dator, Txe Gebararen kamiseta batekin, eta karpeta bat eskuan. Miopea da, despistaturik dator. Mahai gaineko argazkiak begiratzen ditu, gertutik, hobeto ikusteko, eta berehala atzeraka egiten du.

Ertz 3:

Zeinek jarri ditu argazki hauek hemen? Zein gustu txarra! Migel Bose, Papito, eta Fredy Mercuri, Pasadito!

Ertz 3-k argazkiak gordetzen ditu eta Aresen eta Patxi Lopezen argazkiak kokatzen ditu.

Ander:

Hombre! Azkenean uniformearekin liluratuta ez dagoen zipaio bat!

Ertz 3-k haserre begiratzen dio.

Ander (desenkusatur):

Ertzaina normal bat, esan nahi nuen! Txe Gebarak ez dizu batere pegatzen baino!

Ertz 3:

Nola ezetz? Nere idoloa da. Hark ere armak hartu zituen, nik bezala!

Ander:

Bai, baina helburu ezberdinak lortzeko!

Ertz 3:

Txe Gebara militarra zen, hark ezin zuen bakean bizi.

Ander:

Zuek bezala, ezta?

Ertz 3:

Jendea oso oker dago Txe Gebararekin. Pazifista guztiek aldarrikazten dute, baina berak sortu zuen Kubako ejerzitoa.

Ertz 3 Anderri begira-begira geratzen zaio, betaurrekoak jaisten ditu hurbiletik begiratzeko.

Ertz 3:

Gaur aldatu ditut betaurrekoen kristalak, oraindik ez naiz ohitu.

Ander:

Ni ere ohitu ezinik nabil hemen ikusten ditudan gauzekin!

Ertz 3:

Nor zaitugu?

Mahaian paper bat dago atxilotuaren datuekin. Han begiratzen du.

Ertz 3:

Ander Atsegindoza Txapote. (Asaldaturik) Txapote?

Ander:

Agote! Aseginolaza A-GO-TE!

Ertz 3:

Berdin dio, ez al dakizu hitzak autoerreferentzialak direla? (pedanteki) Roland Barthes.

Ertz 3-k bere karpeta irekitzen du argazki bat begiratzeko. Gero Anderri begiratzen dio. Regla bat ateratzen du eta Anderren kaskezurra neurtzen du, argazkikoarekin konparatuz.

Ander:

Zer naiz, kromagñoa ala neanderthala?

Ertz 3 (izututa, erne):

Ez bat eta ez bestea... ETako buruzagia! Horixe zara zu! Eta frogak dauzkat!

Ander:

Jode! Eta zu normala zinela pentsatzen nuen!

Nagusia sartzen da.

Nagusi (Ertz 3-ri):

Zer gertatzen da? (Anderri) Zu oraindik hemen al zaude?

Ander:

Ederra daukagu honekin (Ertz 3-ri buruz)!

Nagusi:

Errespetu piska bat!

Ander:

Hirugarren aldia da errespetua aipatzen duzuela. Eta ni errespetatzen al nauzue? Non da nire errugabetasun...

Nagusi (Ertz 3 aurkeztuz):

Gure informatika aditua da, ez dago disko gogorrik honek irekiko ez duenik. Frogak dauzkala esaten badu, egia izango da.

Ertz 3 (harro-harro):

Eskerrik asko.

Nagusi:

ETAri buruz ari zineten, zer gertatu da?

Ertz 3 (konplizitatez, Nagusiak dakiena berak ere badakiela adieraziz):

Zer gertatu da? Zelako diskrezioa nagusi! ETako azken buruzagia atxilotu duzu eta zu disimulatzen.

Nagusi (harrituta):

ETAko zer? Goizean delinkuenta zen, arratsaldean kale borrokako... Ea froga horiek!

Ertz 3:

Morroi hau Txapoteren lehengusua da, Agote. Ander ez dakit zer Agote. Txapote, Agote. Begira zer aurkitu dudan facebooken.

Ertz 3-k argazki bat ateratzen du karpetatik:  
Ander Espainiako selekzioko kamisetarekin.

Ertz 3:

Ikusten duzu hori?

Anderrek barre algara egiten du.

Nagusi:

Horrek justu kontrakoa demostratzen du, Espainiako selekzioa apoiatzen duela!

Ertz 3:

Zu ere engainatu zaitu. Argazki horiek euren gorrotoa disimulatzeko erabiltzen dituzte. Kamuflatzeko! Begira hemen!

Ertz 3-k beste argazki bat ateratzen du: Manifa baten buruan, Ander oihal palestinoarekin.

Nagusi:

Baina hori manifa ekologista bat da!

Ertz 3:

Disimulatzeko beste amarru bat, borroka sozialetan aurpegia eman ez, borroka armatua zuzentzen duela inork pentsa ez dezan.

Nagusi (urduritzen hasita):

Ez dakit, ez dakit...

Ander:

Nik badakit: Honek eroetxetik ihes egin zuen eta zuek denok engainatu zintuzten!



Ertz 3:  
Hona erabateko froga!

Beste argazki bat ateratzen du: hiru ETAkide daude bertan, kapusaiekin, agiria irakurtzen.

Ander:  
Itxoin, itxoin!

Nagusi:  
Ez da ikusten nortzuk diren!

Ertz 3 (beste argazki bat ateratzen du, bertan bi mozorrodunen ondoan Ander dago, barrez, kapusaia janztera doala):  
Eta orain? Horra tregoa deklarazioaren mackin-offa!

Nagusi (txundituta):  
Harritua uzten nauzu! Miresten zaitut, benetan.  
Nola lortu duzu?

Ander:  
Hori Tolosako ihauterietan egin genuen numero bat da! Broma bat izan zen!

Ertz 3 (Nagusiari mintzo, Anderri kasurik egin gabe):  
Nire bistari esker lortu dut materiala!

Ander:  
Ez al duzue Kortaturen kantua ezagutzen, En Tolosa, Iñauteriak...

Nagusi:  
Zure bistari esker? Zu ez al zara ba miopea?

Ertz 3:  
Funtsezkoa ikusezina da begientzat, bihotzeko begiarekin soilik ikus daiteke. El principito.

Nagusi:  
Inoiz ez dugu horrelako materialik lortu!

Ertz 3:

Lupa bat erabili nuen, 180 gradukoa. Begira, gortina azpian zerbait ahaztu zitzaien estaltzea. 'Electricidad Juantxo'. Juantxo horrek dendak non zeuzkan ikertu nuen, eta zortea izan nuen: Tolosan bakarrik. Hortik aurrerakoa ezin dizut esan, Nagusi. Arriskuan jarriko nituzke nire informazio iturriak.

Ander:

Esan nion Maitaneri, lio batean sartuko ginela, baina kasorik ez! Morboa ematen omen zion ETArraren uniformeak! (ahotsa imitatuz) Me chifla la parafernalia gerrillera!

Ertz 3 (Nagusiari):

Dena dakit! Irratian entzun dut!

Nagusi (nola joka ez dakiela):

Dena dakit, dena dakit! Horrek ez du balio epaile baten aurrean!

Ertz 3:

Erruduntasun kuantikoaren froga psikoteknikoa egin diezaiokegu!

Nagusi:

Barkatu, hori zer da? Hainbeste denbora pasa da Arkauten lizentziatu nintzenetik...

Ertz 3 Nagusiarengana hurbiltzen da zerbait esplikatzeraz, baina ez dugu entzuten. Nagusiak buruarekin baiezkota egiten du. Ezer esan gabe, Ertz 3-k eskuburdinak kentzen dizkio Anderri. Ertz 3 eta Nagusia kanpora ateratzen dira. Ander bakarrik dago. Ez daki zer egin. Batera begiratu, bestera. Oihu egiten du. Bera ere ateratzen da, ihes egitera doanaren kautela erabiliz. Segundu batzuetan ez dugu ezer entzuten. Gero oihuak. Ertz 3-k Ander harrapatu du eta berriro dakar. Aulkian jartzen du, eskuburdinak berriro jarritz. Une berean dator Nagusia ere.

Ertz 3:

Ikusi duzu? Errugabea balitz ez luke ihes egin nahiko!

Ander (negarrez hasten da etsipenez):

Etxera joan nahi dut!

Ertz 3:

Begira, damuaren negarra da! Barrua lehertzeko zorian dauka. Laster aitortuko du dena!

Anderrek oihu egiten du, ezer esan ezinik.

Nagusi (Ertz 3-ri):

Lehen irratian zerbait entzun duzula zenion...

Ertz 3:

Ares jaunak hitz egin du. Gaur ETako buruzagi nagusia atxilotu dutela, baina egoerak eskatzen duen zuhurtziagatik, ezin duela esan atxiloketa non izan den.

Nagusiak gora eta behera mugitzen du burua, harrituta, flipatuta, baina morroia agian egia esaten ari ote den susmoarekin.

Anderrek burua mugitzen du, baina ezker-eskuin.

Ander:

Ez da posible, ezin liteke...

Ertz 3:

Ertzainak zoriondu ditu. Esan du oso partaide gutxik zekitela operazioaren berri, bizpahiru pertsonak besterik ez.

Nagusi (entusiasmatuta):

Ordua... egia da!

Sakelekoak jotzen du. Bakoitza bere patrikara begira hasten da. Nagusiarena da.

Nagusi:

Bai?

Oihu egiten du eta lurrera eroritzen zaio telefonoa. Jasotzen du eta agur militarra egiten du, mugikorra eskuin eskuan duela bekokian ipiniz. Hitz egiteko jaitzi egiten du eskua, telefonoa ahora hurbiltzeko. Gero berriro jasotzen du agur militarra egiteko.

Nagusi:

A... Ares jauna?... Gracias!... Ongi da... Que... ¡que bien, si! Lan gogorra izan da, si, si, muy peligroso, hemos usado las técnicas más avanzadas, nos hemos jugado el... el... lepo (Ertz 3-k 'pellejo' xuxurlatzen dio ondotik), pero por Euskadi lo que sea, y más! ¡Si, a sus órdenes! ¡Ordene y mande! ¿Protocolo k-356? Alerta máxima? Ongi da... ¿Que tratemos bien al detenido?... Bai, Gora Euskadi! Gora Portugalete!

Nagusi (urduri Ertz 3-ri):

Azkar, kendu eskuburdinak! Jainkoarren, ez ote zitzaion markarik geratuko!

Ertz 3-k eskuburdinak kentzen dizkio.

Nagusi (Anderri, konplazentzia guztiarekin):

Zer nahi duzu, kafea? Kamomila? Ebakitxo bat?

Ander:

Wiski doble bat zer moduz?

Nagusi (Ertz 3-ri):

Tira, ekarriozu tila bat, berarentzat ere tentsoa izango da eta momentu hau! Pastak ere bai! A, eta K-356 protokolo-agindua zabaldu kuartel osoan! Deitu tanketak, errefuertzoak, helikopteroak!

Ertz 3 ateratzen da.

Nagusi (leun-leun, mirespenez bezala):

Zer, estresatuta egongo zara, ezta?

Ander:

Lasai egoteko modukoak zarete ba zuek! Honetara iritsiko nintzenik ez nuen bela pentsatuko!

Nagusi:

Normala da, Frantziako santuarioa desagertu zenetik oso estresatuta zabilzate, vamos, Erasmusak bezala, auskalo Europako zein naziotan, baina beti klandestino, Manu Chaoren kantuan bezala.

Ander:

Nahiago nuen Barrikadarena, mucha policia poca diversion!

Nagusi:

Baina ikusi duzu ez garela hain txarrak. Kontaidazu! Zenbat etxetan bizi izan zara? Nolakoa da klandestino bizitza? Zer bazkari prestatzen duzue? Ene! Zenbat abentura izango dituzun kontatzeko!

Ander:

Aizu! Ni ez nintzen gaur arte inoiz kuartel batean egon. Baina zuk ere ez duzu inoiz ETAkide bat begien aurrean ikusi, ezta?

Nagusia serio jartzen da. Ertz 3 dator bandejarekin. Mahaian uzten dio Anderri (Ertz 3 miopea denez, hemen egin daiteke gag bat). Nagusiak mahai gaineko argazkiak ikusten ditu.

Nagusi (haserre):

Zeinek jarri ditu argazki horiek?

Ertz 3:

Baina nagusi, egunero ematen diguzu txapa argazki horiek jartzeko!

Nagusi:

Fuera, fuera! Egoera aldatu egin da. Historia egingo dugu, liburuetan agertuko gara, baina ez bi horiek, gu baizik!

Nagusiak argazkiak eskuaz jota lurrera botatzen ditu, eta beste argazki batzuk ateratzen ditu kajoitik, Zapatero, Otegi, Nagusi bera, eta Urkullu. Lau argazkiak panel batean edo kartulina batean jartzen ditu, laurak elkarren ondoan, ikusleei erakutsiz.

Nagusi:

Gu izango gara Euskadira bakea ekarri zutenak!

Ertz 3:

Baina... Urkulluk zer egin du ba?

Nagusi:

Ezer ez, baina bera izango da hurrengo lehendakaria! Eta zu ere... as... aszenduturik... Nola demontre esaten da hori?

Ertz 3:

Igogailaturik, Nagusi!

Nagusi:

Seguru?

Ertz 3:

Horrek berdin dio: Botererik handiena boterea ez desiratzea da. Maquiavelo.

Ander:

Mojek diote Jesusekin ezkondu zirela, horregatik ari dira beti kristoa montatzen.

Ertz 3:

Zertaran dator hori? Ez dauka graziarik!

Ander:

Hemen ezerk ez dauka graziarik! Total, beste zentzugabekeria batek ez zaituzte harrituko!

Nagusi:

Emozio asko izan dira denbora gutxian, nekatuta gaude denok.

Ander:

Nekatuta zuen neuronak daude. Ni hemen goizetik entzuten ari naizenak entzun bazenituzte... ez daukazue neurona bakar bat ere bizirik!

Audioa: entzuten dira sirena hotsak, helikopteroaren zarata... Ertz 3 begiratzera doa. Gero barrura dator larri.

Ertz 3:

Iritsi dira errefuertzak... eta baita kazetariak ere. Atarian daude, 40 bai gutxienez.

Nagusi:

Itxoin dezatela. Ez al dira egoten egun osoan Belen Estebanen etxe aurrean? Guk Ander Aseginolaza Agote daukagu, Txapoteren lehengusua, ETako azken buruzagia, biharko egunkari guztien portada, telediarioetako lehen albistea... (Anderri begiratzeko dio, gero Ertz 3-ri esaten dio, Ander seinalatuz): Tira, txukundu ezazu piska bat, orraztu, patillak lisatu... Kajoian duzu torturatuentzako makillaje poltsa! A, eta moztu iezaiozu geratzen zaion motots zikin hori!

Ander:

Ez, hirugarrena ez, mesedez! Ez daukat besterik!

Ertz 3-k guraizak hartu eta zast mozten dio. Usaintzen du eta ia atzeraka eroritzen da. Jende artera botatzen du.

Ertz 3 (bere burua apainduz, Nagusiari): Argazkietan agertzeko moduan al nago?

Ander:

Badira aurpegiak salbaziorik ez daukatenak!

## EPILOGOA

Ertz 3 (Nagusiari):  
Aresi itxoin beharko diogu, ezta?

Ander:  
Haren ondoan jartzen bazara igoal mejoratuta  
aterako zara!

Ertz 3:  
Errespetu piskat! Zu zara gure izarra, bai, baina  
gutxi iraungo du zure argiak!

Ander:  
Laugarren aldia da 'errespetu' hitza entzuten  
dudana... malo!

Nagusi (urduri dabil):  
Ajuriaeneara deitu beharko nuke, han egongo da  
bilduta gabinetea!

Une horretan telefonoak jotzen dio.

Nagusi:  
Esan eta izan. Horra Ajuriaenea! (urduri) Baa  
bai?... Arratsaldeon, lehendakari jauna! (hau esaten  
ari delarik eskua bihotzera eramaten du, agurra  
solemneagoa izan dadin, baina nahi gabe telefonoa  
dauka eskuan) Baaai? ...Barkatu! Arratsaldeon!  
Buenas tardes! Mireia Estibalitz Sanchez Gerena  
subkomisario emea zure esanetara, jauna!... Zer? Ez,  
subkomisarioenea esan nahi nizun, Ajuriaenearekin  
txistea egiteko, je je... ¡Siempre me han dicho que  
tenía usted un humor socarrón!  
(Zeinuka ari zaio Ertz 3-ri, kartulinaran Urkulluren  
argazkia ken dezan, Patxi Lopezena jartzeko)  
Aquí está, si, su foto preside la comisaría, es  
nuestra luz... A, quién, ¿el detenido? Si, está  
aquí, cuidado entre algodones. Saiatu da gu  
engainatzen, baina ez du lortu...  
Zer?



Aske uzteko?

¿Qué lo deje libre?

Pero... libre... de libertad?

Barkatu jauna, ez dut ulertzen...

Lortu duzuela denak engainatzea?

Baina...

No me jodas tio... barkatu, Patxi... bueno, ez, ez barkatu...

Patxi, pitxafloja, que me dices?

Pero pero... llevamos todo el día con él, sin poder identificarlo... mila pista faltsu jarri dizkigu, eta orain, egia jakitera iritsi garenean... Gezurra dela?

¿Qué todo es mentira?

Benetako buruzagia Ondarroan daukazuela?

Mila esker?

(Ertz 3 urduri dago, eta telefonoa kentzen dio Nagusiari)

Ertz 3:

Mila esker, no, mila ostia! Gu poliziak gara, eta ez pailazoak, despatxo epel batetik adarra jotzeko hauteskundeak irabazi ez zituen ergel koadrila batek! Pailazo es payaso, si. ¿Lo que eres tú!

Nagusiak tfnoa kentzen dio.

Nagusi:

Bai, konforme nago berarekin.

¿Qué? ¿Automáticamente degradados?

Entzun: Degradatuak egonen gara, baina ez gara zuek bezain degradanteak izanen!

Amaitu da deia. Nagusi eta Ertz 3 publikoari begira daude, tonto aurpegiarekin.

Nagusi:

ETAko benetako buruzagia Ondarroan atxilotu omen dute, baina gure morroi hau aprobetxatzea erabaki dute hedabideak despistatzeko!

Ander:

Esan dizuet hasieratik!

Nagusi:

Zu ixo! (Ertz 3-ri) Zer egin behar dugu kazetariekin?

Ertz 3:

Zer egin behar dugun? En pelotas agertuko naiz haien aurrera, Noting Hill pelikulakoa bezala... ikus ditzaten nere abdominalak!

Ertz 3 arropa kentzen hasten da eta badoa eszenatik.

Ander:

Ikusten nola arrazoia neukan?

Nagusi:

Bai, arrazoia zuk daukazu, baina porra nik daukat!

Ander (beldurtzen hasita):

Joan ninteke?

Nagusi:

Bai, joan zintezke, baina ez ostiako batzuk hartu gabe!

Korrika hasten dira gelan bueltaka, zine mutuan bezala, bata bestearen atzetik.

Nagusi:

Toma, Otegi! Toma, Txapote! Toma, Artapalo! Toma Txeroki! Toma Patxi Lopez! Toma Basagoiti! Toma Surio! Toma Rubalcaba! Toma...

Ateratzen dira eszenatik.

Amaitu da.

